

2013IAKU0004

65. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2013ko maiatzaren 2an, arratsaldeko zazpi eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

Bertaratutako zinegotziak: Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Azis Alberdi Zaldunbide jn.
Eneko Agirre Maiora jn.
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Edurne Egaña Manterola and.
Ana Arranz Irigoyen and.
Isidro Fernandez Echave jn.
Aitor Leiza Alberdi jn
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Ez bertaratuak

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre

2013IAKU0004

EGUNeko AZTERGAIAK

1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (64. zbkia - 2013.03.21)

64. akta onartutzat eman dute

2.- HIRIGINTZA.-

IRIZPENA:

ZUMAIAKO BASUSTAKO MA1GUNEKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.-

2013KO APIRILAREN 22KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO BASUSTAKO MA1 GUNEKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Ikusirik, JUAN LUIS SAEZ GARCIAk aurkeztutako eta Jon Arratibel Urangak eta Nerea Sudupe Uriak egindako Basustako MA1 guneko Egitasmo Berezia.

Ikusirik Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.k egindako Egitasmo Bereziaren ingurumenarekiko eraginaren ebaluazioaren Azterketa.

Ikusirik udal zerbitzu teknikoen aldeko txostenen ezarritako baldintzak.

2012ko otsailaren 3ko 58/2012 zk. duen Alkatetza Dekretuz Hasierako onarpena eman zitzaion Zumaiako Basusta M.A.1. *Ingurugiroaren Hobekuntza Zonaldean (Basusta) Lurzorua Urbanizazioeneko Plan Bereziari*, Jon Arratibel Urangak eta Nerea Sudupe Uriak 2011ko Azaroan idatziari. Espedientearen barne dago Ingurumenean duen eraginaren Ebaluazio Bateratuaren azterlana ere, Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.k idatzia.

Espedientea Berrogeita bost egunean ikusgai jarri da, plana eta Ingurumenean duen eraginaren Ebaluazio Bateratuaren azterlana. Era berean, hizpide dugun dokumentuan adierazitako erakundeei ere kontsultatu zaie, expedientea begiratu eta oharrak egin ditzaten. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkia 2012ko Otsailaren 9an (108.zk.) eta Berria, Urola Kostako Hitza eta Diario Vasco egunkarietan 2012ko Otsailaren 9an. Era berean, udaleko iragarki taulan eta Zumaiako Udaletxeko webgunean ere argitaratu da

2.-Ikusirik, Zumaiako Osoko Bilkurak 2012ko maiatzaren 31ko ohiko batzarraldian, besteak beste, ondorengo akordioa hartu zuela:

2013IAKU0004

"LEHENA.- Yon Zelaya Larrañagak bere izenean eta Leire Zelaya Juaristirenear aurkeztutako alegazioa ezetsi Zumaiako Udaleko zerbitzu teknikoek egindako txostenaren arabera.
BIGARRENA.- Erakundeetatik jasotako lau alegazioak baietsi eta Ingurumenaren gaineko Azterketari buruzkoak direnez Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara igortzea Ingurumenaren gaineko eraginari behin betiko txostena eskatzerakoan kontuan izan ditzan.
HIRUGARRENA.- Juan Luis Saez Garcia aurkeztutako eta Jon Arratibel Urangak eta Nerea Sudupe Uriak egindako Basustako MA1 guneko Egitasmo Bereziari behin-behineko onarprena ematea."

3.- Ikusirik 2012ko Abenduaren 11ko Gipuzkoako Euskal Herriko Lurralte Antolaketako Batzordearen 5/2012 Bilkuran Plan Bereziari buruzko harturiko aldeko akordioa.

4.- Ikusirik Ingurumen Sailburuordetzaren 2012ko Uztailaren 26ko Ebazpena, Zumaiako Basusta M.A.1. Ingurugiroaren Hobekuntza Zonaldean (Basusta) Lurzoru Urbanizaezineko Plan Berezia" izeneko planak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruzko behin betiko txostena egiten duena.

5.- Ikusirik Lurralte Antolaketako zuzendaritza Nagusiaren arduradunak 2013ko Martxoaren 25ean emandako ebazpena, Zumaiako Basusta M.A.1. Ingurugiroaren Hobekuntza Zonaldean (Basusta) Lurzoru Urbanizaezineko Plan Berezia ahalbidetzen duen jarduera interes publikotzat jotzen duena.

IRIZPENA

Ondorioz, 2013ko Apirilaren 22ko Hirigintza eta Ingurumen Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrezabala (Bildu)
Azis Alberdi (Bildu)
Emiliano Cabañas (PSE)
Isidro Fernandez (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalatzako osoko bilkuraren irizipean jartea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalatzako bertan dauden gehiengo simplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- JUAN LUIS SAEZ GARCIAk aurkeztutako eta Jon Arratibel Urangak eta Nerea Sudupe Uriak egindako Basustako MA1 guneko Egitasmo Bereziari behin behineko onarprena ematea.

BIGARRENGOA: Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralte historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea

Alkateak irizpena aurkeztu du eta, jarraian bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **13 boto** (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

Erabakia: Zumaiko Basustako MA1 guneko plan berezia behin betiko izaerarekin onartu da

3.- PROPOSAMENA.-

3.1.- ZUMAIKO UDALAK “CORRUGADOS AZPEITIA” ENPRESAKO LANGILEKIKO ELKARTASUNA

Azpeitian dagoen Corrugados Azpeitia altzairutegiko Enpresa Batzordeak udala osatzen duten alderdi guztiei, hemen aurkezten den mozioa onar dezatela eskatzen du.

Badira iada bi urte kalera atera behar izan genuela gure lanpostuak eta lan baldintzak defendatzen. Halabeharrez orduan hasitako borrokak gaur dirau. 2011an enpresak 100 langile baino gehiago kaleratu zituen eta, 2012ko ekainean, suspentsiozko ERE batekin batera beste 60 langile kaleratzeko espedientea aurkezteaz gain, 49 orduko lanaldia hazkunde eta soldaten %35ren jaitsiera inposatu ziguten. Enpresak hau guztia negoziatzeko baino inposatzeko zuen asmoa salatu genuen lehenengo unetik eta greba mugagabeari ekin genion. Aurrerago, epaileek enpresaren negoziatzeko borondate eza frogatutzat eman zuten birritan eta, ondorioz, 60 kaleratzek, soldatu jaitsiera eta lanaldi hazkundearen nulitatea ebatzi zuten.

Gure aldeko epai hauek kontutan izanik, negoziaketaren mesedetan 2013ko urtarrilaren hasieran lanera bueltatu gien, baina, enpresak hasierako planteamendu berdinak mantendu ditu. Guk, beste neurrien artean, sinesgarritasuna duen bideragarritasun plan bat exijitu genien, aldi berean, adostasuna lortzeko bidean proposamenak eginez, besteak beste borondatzeko kalerapenak onartzeko eta soldatetan zati baten kobrantza atzeratzeko prestutasuna azalduz. Baina hasieratik garbi zuten akordiorik ez zutela nahi eta negoziaketa antzerki huts bat bezala erabili dute denbora irabazi eta beraien burua zuritzeko.

Azken hilabeteotan emandako hainbat gertakariei erreparatu behar diegu. Batetik, bere momentuan salatu genuen bezala, lantegian zegoen txatarra guztia funditu da eta produktua bukatuta atera da, aldi berean, oso txatarra kopuru txikia sartu delarik. Beraz, materia primariak

2013IAKU0004

ez dagoenez ez dago ia lanik. Bestetik, tarte honetan Gipuzkoako Aldundiak urtebeterako -5 urtez luzagarria- 150.000 tonatako lan karga lortu bazuen ere Azpeitiako zuzendaritzak ez du inongo interesik azaldu operazioa aurrera atera zedin.

Madrilen, Corrugados Getafe enpresak produkzio berdina egiten du eta, ondorioz, konpetentzia da. Han, langile guztiak kaleratu eta gero, Alfonso Gallardok proposatutako murrizketa guztiak onartu dituenak lanera bueltatu da.

Alfonso Gallardo Taldeak Getafeko lantegiaren aldeko hautua egin du, Azpeitiko 300 langileak lanik gabe utziz. Gurekin izandako negoziaketa baliatu da lan karga eskaintzen zigun bitartean, denbora irabazi eta beste enpresetan izandako arazoak konpontzeko.

Lantegiaren itxierak langileontzako ez ezik, industria laguntzailean, zerbitzuetan, merkataritzan eta ostalaritzan ere eraginak izango ditu. Onartezina da diru publikoa jaso duen enpresa honek lantegia ixteko erabakia hartzea. Itxiera honek Urola eskualdeko herrienzat kaltea baino ez luke ekarriko. Galduztako lanpostuak ez dira epe laburrean berreskuratuko eta hurrengo belaunaldiak langabezira kondenatuak izango dira.

Jokoan etorkizuna dugulako, egoerari buelta emateko eta itxieraren erabakiari aurre egiteko, langileak, herritarrok eta instituzioak eskuz esku aritu behar garelako, hurrengo mozioarekin bat egitea eskatzen dugu.

ZUMAIKO Udalak bere elkartasuna adierazten die Corrugados Azpeitia enpresako langilei.

ZUMAIKO Udalak, enpresaren itxierak eskualde zein herri honen biztanleentzat ekar dezaken kaltea kezka haundiz ikusten du eta, horregaitik, enpresak lanpostuak mantentzen ditzan, itxieraren aurka agertzen da.

ZUMAIKO Udalak, enpresari itxieraren erabakia bertan behera utz dezala eta negoziazioarekin jarrai dezala eskatzen dio.

ZUMAIKO Udalak, egoera larri honi irtenbide on bat lortzeko saiakerak egingo ditu eta, horretarako, beste instituzioetan, hau da, Gipuzkoako Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan, behar diren gestioak egiteko konpromisoa hartzen du.

ZUMAIKO Udalak, enpresa zabalik mantentzeko eta lanpostuak defendatzeko langileek egin behar dituzten ekimen sindikalak eta sozialak egin ditzaten bere esku dagoen laguntza logistikoa eta materiala emateko konpromisoa hartzen du.

ZUMAIKO Udalak, apirilaren 20an, itxieraren aurka eta lanpostuen aldeko helburuekin Azpeitian egingo den manifestazioarekin bat egiten du.

ZUMAIKO Udalak, hartutako erabaki hauen beri udal-bando baten bitartez helaraziko dio herritarrei eta, era berean, Alfonso Gallardo Taldeko zuzendaritzari, Enpresa Batzordeari, Gipuzkoako Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari idazki baten bitartez helaraziko zaie honen berri.

Esteban Campos,

Corrugados Azpeitia enpresako komiteko Presidentea.

2013IAKU0004

Corrugados Azpeitia enpresa batzordeak aurkeztua eta Zumaiako Udaleko udal talde politiko guztiak bere egin duten idatzia. 2013ko apirilaren 5ean aurkeztua: Erregistro Orokorreko sarrera-zenbakia nº 1050.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **13 boto** (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 6 BILDU)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

Erabakia: Corrugados Azpeitia enpresaren inguruko proposamena onartu da

4.- ANA ARRANZek ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEN DIOLA OSOKO BILKURAREN EZAGUPEAN JARRI.

PROPOSAMENA, ANA ARRANZEK (EAJ-PNV) ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEARI BURUZKOA

2013ko martxoaren 25ean Ana Arranz Irigoyenek, EAJ-PNV udal-talde politikoaren kide independenteak, hain zuzen ere, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztutako idatziaren bitarteaz, Udalaren ezagutzan jarri du Zumaiako Udaleko zinegotzi karguari uko egiteko asmoa eta, aldi berean, legezko tramiteak abiarazi daitezela hura gauzatzeko.

Alkate naizen honek Toki-erakundeen Funtzionamenduaren eta Antolamenduaren Erregelamenduaren 9.4 artikuluak, Hauteskunde Orokorreko Araubidearen 5/1985 Lege Organikoaren 15.2, 19.1 l) eta 182 artikuluek ezarritakoari jarraiki eta, bereziki, Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako Instrukzioaren arabera, Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten diot:

Lehenengoa.- Ezagutzan hartu dezala Ana Arranz Irigoyen zinegotzi karguari uko egitea.

Bigarrena.- EAJ-PNV udal-talde politikoaren zinegotzi postu bat hutsik dagoela adieraztea.

Hirugarrena.- Akordioaren ziurtagiria Hauteskunde-batzorde Zentralari helaraziko zaio, dagokion hurrenko hautagaiaren hautetsi-kredentziala eman dezan.

Alkateak Ana Arranz Irigoyen (EAJ-PNV) zinegotziak karguari uko egitearen berrri eman du. Gehitu du, plazer bat izan dela egindako lanagatik.

2013IAKU0004

Ana Arranzek (EAJ-PNV) lan kontuak direla-eta kargua utzi behar izan duela adierazi du, eta, lehenbiz,i bere alderdikideei lagunza eskertu die, eta bigarrenik, gainontzeko batzordekideei. Bukatzeko, etorkizunean elkarlanean jarraitzeko itxaropena azaldu du.

Montse Aranak (EAJ-PNV) argitu du EAJ-PNVko zerrendan hurrengo hautagaiak uko egin diola eta, hortaz, zinegotzi bezala Xabier Gallastegi jn. proposatzen dutela.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 65

2013IAKU0004

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas treinta minutos del día dos de mayo de dos mil trece, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

Presidente: Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Concejales: Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua
Sr. Iñaki Ostolaza Esnal
Sr. Azis Alberdi Zaldunbide
Sr. Eneko Agirre Maiora
Sra. Maitane Agirre Arrieta
Sr. Montse Arana Perez
Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua
Sra. Edurne Egaña Manterola
Sra. Ana Arranz Irigoyen
Sr. Isidro Fernandez Echave
Sr. Aitor Leiza Alberdi
Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

No presentes

Secretario: Gorka Urquiza Agirre

ORDEN DEL DÍA

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR:
(21.03.2013 núm. 64)**

El acta nº 64 ha quedado aprobada.

2.- URBANISMO.-

2.1.- DICTAMEN:

APROBACION DEFINITIVA, SI PROCEDE, DEL PLAN ESPECIAL DE LA ZONA MA1 DE BASUSTA.-

DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE URBANISMO DE 22 DE ABRIL DE 2013 SOBRE LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE LA ZONA MA 1 DE BASUSTA.

ANTECEDENTES

1.- Visto el Plan Especial de la zona MA 1 de Basusta, presentado por JUAN LUIS SAEZ GARCIA y redactado por Jon Arratibel Uranga y Nerea Sudupe Uria.

Visto el Estudio de impacto ambiental del Plan Especial redactado por Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.

Vistas el informe favorable condicionado de los servicios técnicos municipales

Por Decreto de Alcaldía nº 58/2012 de 3 de febrero de 2012 se Aprobó inicialmente el Plan Especial de Suelo No Urbanizable en la zona de mejora ambiental de Basusta MA.1 de Zumaia, redactado por Jon Arratibel Uranga y Nerea Sudupe Uria en noviembre de 2011. El expediente incluye la Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, redactado por Ekos Estudios Medioambientales S.L.U.

El expediente que incluye el Plan así como el Estudio de Impacto ambiental, fue sometido a exposición pública por período de 45 días. Fueron consultadas las administraciones implicadas, con la finalidad de que analizaran el documento y realizaran las observaciones pertinentes. El anuncio fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del día 9 de febrero de 2012, así como en el "Diario Vasco", "Berria" y "Urola Kostako Hitza" el día 9 de febrero de 2012, así como en el tablón de anuncios de Ayuntamiento y en la web municipal.

2.- Visto que el Pleno Municipal celebrado el 31 de Mayo de 2012 acordó lo siguiente:

"PRIMERO.- Desestimar la Alegación presentada por YON ZELAYA LARRAÑAGA en propia persona y en representación de LEIRE ZELAYA JUARISTI.

SEGUNDO.- Estimar las cuatro alegaciones presentadas por las instituciones afectadas y entendiendo que afectan al Estudio de Impacto ambiental y su declaración que compete al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco remitirlas en el momento de solicitar el Informe Definitivo de Impacto Ambiental.

TERCERO.- Aprobar Provisionalmente el Plan Especial de Suelo No Urbanizable en la zona de mejora ambiental de Basusta MA.1 de Zumaia, redactado por Jon Arratibel Uranga y Nerea Sudupe Uria."

3.- Visto que en la sesión 5/2012 de la Sección de Planeamiento Urbanístico de la COPV de Gipuzkoa celebrada en día 11 de Diciembre se adoptó el acuerdo de informar favorablemente el Plan Especial

2013IAKU0004

4.- Vista Resolución de 26 de Julio de 2012 de la Viceconsejera de Medio Ambiente por la que se formula informe Definitivo de Impacto Ambiental del “Plan Especial en suelo No urbanizable en la Zona de Mejora Ambiental de Basusta M.A.1. en Zumaia”

5.- Vista Resolución del titular de la dirección General de Ordenación Territorial en la que se Declara de interés público la actividad que posibilita el “Plan Especial de suelo no urbanizable en la zona de mejora ambiental de Basusta MA.1. de Zumaia .

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión Informativa de Urbanismo y Medio Ambiente de fecha 22 de Abril de 2013, tras la siguiente votación:

A favor: Iñaki Agirrezzabala (Bildu)
Azis Alberdi (Bildu)
Emiliano Cabañas (PSE)
Isidro Fernandez (EAJ)

En contra: 0
Abstención: 0

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

PRIMERO.- Aprobar Definitivamente el “Plan Especial de Suelo No Urbanizable en la zona de mejora ambiental de Basusta MA.1 de Zumaia”, redactado por Jon Arratibel Uranga y Nerea Sudupe Uria.

SEGUNDO.- Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa y publicar el acuerdo y el documento refundido en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en el diario o diarios de mayor difusión del territorio histórico.

El Alcalde ha presentado el dictamen y, a continuación, han procedido a votar.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: **13 votos** (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 BILDU)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: 0 votos

ACUERDO: el Plan Especial de la zona MA1 de Basusta se ha aprobado con carácter definitivo.-

3.- PROPOSICION.-

3.1.- SOLIDARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA CON LOS TRABAJADORES DE LA EMPRESA “CORRUGADOS AZPEITIA”.-

Corrugadosen mozioa euskaraz bakarrik dago.

Escrito presentado por el Comité de Empresa de CORRUGADOS AZPEITIA y que han hecho suyo todos los grupos políticos del Ayuntamiento de Zumaia. Entrada en el Registro General de 5 de abril de 2013; nº 1050.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: **13 votos** (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 BILDU)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **0 votos**

ACUERDO: Se ha aprobado la proposición relativa a la empresa CORRUGADOS AZPEITIA.

4.- DAR CUENTA DE LA RENUNCIA AL CARGO DE CONCEJAL POR ANA ARRANZ (EAJ/PNV).-

PROPOSICION RELATIVA AL EXPEDIENTE DE RENUNCIA DE LA CONCEJAL ANA ARRANZ IRIGOYEN (EAJ-PNV)

A la vista del escrito presentado en el Registro General del Ayuntamiento de fecha 25 de marzo de 2013, en el que Ana Arranz Irigoyen (EAJ-PNV) manifiesta su voluntad de renunciar a la condición de concejal de esta Corporación, por los motivos que constan en dicho escrito y solicita se de curso a los trámites legales pertinentes para su efectividad.

Esta Alcaldía, considerando lo dispuesto en el art. 9.4 del ROF, arts. 15.2, 19.1 l) y 182 de la LOREG, y, especialmente, la Instrucción de la Junta Electoral Central de 10 de Julio de 2003,

2013IAKU0004

sobre sustitución de cargos representativos locales, propone al Pleno adopte el siguiente acuerdo:

Primero.- Tomar conocimiento de la renuncia al cargo de Concejal de este Ayuntamiento de Ana Arranz Irigoyen (EAJ-PNV)

Segundo.- Declarar vacante de un puesto de Concejal perteneciente al grupo político municipal EAJ-PNV.

Tercero.- Remitir certificación del presente acuerdo a la Junta Electoral Central a los efectos de la expedición de credencial acreditativa de la condición de electo a favor del candidato que corresponda.

El Alcalde ha dado cuenta de la renuncia de Ana Arranz Irigoyen (EAJ-PNV) y le ha manifestado su placer por el trabajo

Ana Arranz (EAJ-PNV) ha manifestado que la renuncia obedece a motivos de trabajo, y ha mostrado su agradecimiento, en primer lugar, a sus compañeros de partido y, en segundo lugar, a los demás concejales con los que ha coincidido en las Comisiones.

Montse Arana (EAJ-PNV) ha aclarado que la siguiente en la lista de EAJ-PNV (D^a Maitane) ha renunciado y que proponen como concejal al candidato D. Xabier Gallastegi.

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las siete y cuarenta minutos de la tarde y yo, el Secretario , doy fe.

El Secretario